

LUCYRENGANDIK
KANTENGANA
Giza animaliarene bidaia miragarria

Jon Sudupe Martija

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

CIP. Unibertsitateko Biblioteka

Sudupe, Jon

Lucyrengadik Kantengana: giza animalia-aren bidaia miragarria / Jon Sudupe Martija. – [Leioa]: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, D.L. 2022. – 261 p. ; 23 cm. – (Filosofía ; 14)

Bibliografía: p. 257-261.

ISBN: 978-84-1319-.

1. Antropología filosófica. 2. Hombre – Evolución. 3. Kant, Immanuel, 1724-1804.
4. Darwin, Charles, 1809-1882.

120:572

575.8

*Behin batean Steven Pinkerri buruz
miresmenez hitz egin zidan*

Juan Mari Seguesi

Hitz batean, guztiok gara aldi berean Kant eta txinpantzea.

Georges Chapouthier,
Kant eta txinpantzea, 2011

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	13
Lehen partea: Nondik gatz?	17
1. Hasieran eboluzioa zen	19
2. Tximino espezie aurreratu bat	31
3. Genoma, gure autobiografia	43
4. Herentzia eta portaera	55
5. Nor da giza naturaren beldur?	67
Bigarren partea. Zer gara gu?	79
6. Unibertsoko egiturarik konplexuena	81
7. Descartes oker zegoen	93
8. Makina pentsatzaileak?	107
9. Hizkuntza duen animalia	117
10. Kultura, ohiz kanpoko ezaugarria	129
Hirugarren partea. Zer egin behar dugu?	139
11. Txinpantzea eta Kant	141
12. Naturaren eta askatasunaren artean	153
13. Sena eta arrazoimena	163
14. Gizakiak duintasuna du	175
15. Ilustrazio berria	187
Laugarren partea. Nora goaz?	199
16. Inoizko garai onenak	201
17. Zirkulua zabalduz doa	213

18. Naturarekin bat izan	225
19. Erronka arriskutsuak	235
20. Etorkizuna zabalik dago	247
Bibliografia	257

HITZAURREA

1804ko otsailaren 12an hil zen Immanuel Kant alemaniar filosofoa eta egun berean, bost urte beranduago, Charles Darwin ingeles naturalista jaio zen, 1809an. Pentsamenduaren erraldoiak izan ziren biak ala biak, egiaren bilatzaileak, espiritu libreak, fanatismoaren eta sinesmen dogmatikoen etsaiak. Garena eta izan nahi duguna argitzen lagundu zигuten.

Hiru galdera nagusi egin zituen Kantek: «Nire arrazoimenaren interes oro (espekulatiboa zein praktikoa) datozen hiru galdekizunetan biltzen da: *Zer ezagutu dezaket? Zer egin behar dut? Zer espero dezaket?* ». Eta guztiak galdera bakar batean laburbil daitezkeela gaineratu zuen: *Zer da gizakia?* Gure izateari buruzko galderetan funtsezkoena haxe dela adierazi zuen, eta antropologia arduratzen zela horretaz.

Garai hartan, baina, ezinezkoa zen galdera horri behar den bezala erantzutea, giza natura ezer gutxi ezagutzen baitzen. Ez zegoen ezagupen eta datu nahikorik. Gizakia izan zen Kanten gogoeten muin eta ardatz, baina, *Antropologia ikuspuntu pragmatikoan* kenduta, ez zion lan berezirik eskaini. 1798ko saiakera horretan, ikuspegi fisiologikotik («zer egiten duen naturak gizakiaz») zein pragmatikotik («zer egiten duen gizakiak libreki bere buruaz») ekin zion gaiari Kant zaharrak. Alabaina, ez du haren filosofia osorik biltzen.

Martin Buber austriar filosofo eta teologo juduak *Gizakiaren arazoa* izeneko obra idatzi zuen 1942an. Hark zioenez, Kant ez zen bere galderari erantzuteko gai izan. Ez zion modu esplizituan erantzun bere idazlanetan. Kantek gizakiaren izatea zehatz-mehatz azaldu ez izana ez da harritzekoa, ordea: ez zuen tresneria egokirik. Erantzuna ez ze-

goen garai hartako gizon-emakumeen eskueran. 1790ean, haren hirugarren *Kritika* argitaratu zenean, biologia ez zen artean zientzia gisa existitzen. Giza izaera ezagutzeko gaur egun ditugun bitartekoak ez zeuden Kanten eskura. Kontuan hartu beharra dago orain dela ehun urte ez genekielako ia ezer garunaz, giza eboluzioaz edota herentzia biologikoaz. Jakina, M. Buberrek berak ere ez zion erantzun betea eman, giza natura nahiko ezezaguna baitzitzaion. 1842an inork ez zekien eboluzioaren egiazko zergatia, eta 1952an inork ez zuen kode genetikokoaren izaera ezagutzen. Orainsu hasi gara datu fidagarriak izaten giza animaliaz zentzuz hitz egin ahal izateko.

Galdera hori bera egin ziotenean, zera adierazi zuen George G. Simpson zoologo handiak: «Orain nabarmendu nahi dut galdera horri erantzuteko 1859 baino lehen egindako ahalegin guztiek ez dutela inolako baliorik, eta hobe dugula guztiz alde batera uzten baditugu». Gehiegi esatea badirudi ere, ez zebilen horren oker. Kanten galdera erabakigarriari egoki erantzuteko, giza naturaren berri jakin beharra baitago lehen-lehenik. Orain, argi dagoenean nola diharduen eboluzioak, berriro galdera bertsua egin dezakegu: zerk egin gaitu gizon-emakume? Auzi horrek filosofiaren —eta zientziaren— arreta ekarri du etengabe.

Espezieen bilakaerak ibilbide historiko luzea izan du. Bizia ez da jainkozko sorkaria, prozesu luzeen emaitza baizik: hautespen naturalaren bidezko eboluzio luze baten ondorena gara. Gu gara animaliairen eta izaki zinez gizatiarraren artean luzaro bilatutako kate maila galdua, zioen Karl Lorenz etologo handiak. Ez gara zerutik erorritako aingeruak, ezta makina edo konputagailuak ere. Zer izaki mota gara, hortaz? Zer dela-eta gara garen bezalakoak? Zein dira beste animalien gandik desberdintzen gaituzten ezaugarriak? Linneok *Homo sapiens* deitu zuen giza espeziea zertan bereizten da gainerako espezieetatik? Hortik dator arazo nagusia: etikak «oinarri naturala» baino ez du, ala, askatasuna dela medio, gainditu egiten du natura, Kantek zioen bezala?

Filosofiaren etorkizuneko zereginetako bat Kanten jarrera filosofikoa Darwinen tesi zientifikoekin bateratzea izango dela adierazi zuen Jürgen Habermas filosofo alemaniarrek 1998ko *Pentsamendu postmetafisikoa* saiakera liburuan. Charles Darwin ulertzeko Kant irakurri beharra dagoela erantsi zuen modu zirikatzaile samarrean: «Darwin ulertu nahi duenak, Kant irakurri behar du». Kant hankamotz gelditzen da Darwin gabe eta alderantziz. Kanten jarrera filosofikoa eta Darwinen tesi zientifikoak uztartzean dago koska. Gizon-emakumeen

ibilbide harrigarria ulertzeko nahitaezkoak dira bai bata eta bai bestea. Gaur egun, aleman filosofoa eta ingeles naturalista kontrajartzeak ez du zentzurik. Kantek Darwinengana garamatza ezinbestean. Filosofia-ren arazo nagusiak biologia ebolutiboaren urrin nahastezina du.

Kanten *Arrazoimen praktikoaren kritika* eta Darwinen *Espezieen jatorria* dira gure gidaliburuak. Modernitate filosofiko eta zientifikoaren laburpen moduko bat dira, nolabait esateko. Gure mundu ikuspegia goitik behera aldatu dute. Gizakiaren jatorria nolakoa den azaldu zuen zientzialari ingelesak; gizateriaren etorkizuna nolakoa izan beharko lukeen adierazi zuen filosofo alemaniarak. Bizia- ren zientziaren oinarriak ezarri zituen bata; moralaren filosofiaren printzipioak, besteak. Inor ez da Kant bezain sakon barneratu etikaren barrutian. Inork ez du Darwin-ek bezain zorrotz aztertu espezieen eboluzioa. Ildo horretan, Kanten eta Darwinen seme-alabak gara guztiok. Jakina, ez gara ez Kanten ez Darwinen garaikideak, baina «haien bizkar gainean gabiltzan» oinordekoak gara. Behin betiko markatu dute gure mundu ikuskera.

Kant eta Darwin ditugu pentsamendu moderno berriaren zutabeak. Iraultza kantiarrak paradigma moderno-ilustratuari hasiera eman zion moduan, iraultza darwinistak aro garaikidea abiarazi zuen. Dударik gabe, Darwinek arrazoi zuen: biologiak garrantzi nabarmena du oso. Gaur egun, fisika eta kosmologia, eboluzioa eta neurologia aintzakotzat hartzeke ezinezkoa da zer garen galderari erantzutea. Darwin gabe ezin da giza izaera biologikoa taxuz ulertu. Eta Kant gabe ere ez giza izaera morala: etika da izaki bereziak egiten gaituena, beste guztietatik desberdintzen gaituena. Moralaren filosofian inperatibo kategorikoak duen garrantzia eboluzioaren teoria darwinistan hautespen naturalak duenaren parekoa da.

Gizakiaren zinetako izaera ulertzeko premia ez da gauza berria. «Gure buruaren ezagutza da eskura daitekeen zientziarik premiazkoen eta baliagarriena», adierazi zuen Henri de Boulanvilliers pentsalari frantziarrak 1683an. Bi mende geroago, Kanten galdera ospetsuaren oihartzuna entzun dezakegu gaur egun ere: Zer gara gu? Animalia hutsak ala bereziak? Zer leku dagokigu gizon-emakumeoi izaki bizidunen erreinuan? Non datza giza espeziearen berezko izatea? Sinesgaitza bada ere, gizakiaren definizio erabat gogobetekorik ez dugu oraindik. Ez gizarte zientziek ez natur zientziek eman digute giza naturaren azalpen oso-osorik. «Zer da gizakia?» galdetu zion bere buruari Kantek. Galdera hori beti egongo da irekita eta bizirik.

Kanten galdera filosofiko handiek zientziaren beharra dute, ez bakarrik erantzuteko, baita behar bezala planteatzeko ere. Darwinen eboluzioaren teoria eta Kanten filosofia morala uztartzean legoke irtenbidearen gakoa. Giza izatearen funtsa aurkitzen lagun diezagukete bi-biek. Gaurko zientzia berriak —genetika, neurobiologia, zientzia kognitiboa, etab.— eta giza zientziak aintzat hartuta, betiere. Kant eta Darwinen arteko bat-egite egokia erdietsiz, gizon-emakumeok geure buruari betidanik egin diogun galdera nagusiari erantzuteko moduan izango gara, agian.

Nola uztartu, baina, Darwin eta Kant, natura eta askatasuna, biologia eta kultura, eboluzioa eta etika? Bateragarriak al dira «transzendentalismoa» eta naturalismoa? Zertan etor daitezke bat bi jakintsu haien ideiak? Izan ote gaitezke kantiar eta darwinista aldi berean? Galdera horiei eta beste batzuei erantzun nahi lieke gogoeta saiakera honek. Ahalik eta hizkerarik argienez, ahal dela.

Lehen partea

Nondik gatzoz?

1

HASIERAN EBOLUZIOA ZEN

Badu handitasunik bizia ikusteko modu horrek. Biziaren ahalmen ugarien bidez, hastapenetan forma apur batzuen edo bakar baten moldean egina izanik, planeta honek grabitatearen lege finkoaren arabera etengabe biraka ziharduelarik, hain hasiera simpletik ezin konta ahala forma bilakatu dira, eta bilakatzen ari dira, zein baino zein ederragoa eta harrigarriagoa.

Charles Darwin,
Espezieen jatorria, 1859

Heraklito filosofo greziarrak esana zuen: «gauza oro doa jarioan», dena da etengabe aldatzen, ezer ez dago geldirik. Unibertsoaren egonkortasuna irudipen bat da, besterik ez. Espezie biologikoak aldatu egiten dira eboluzio biologikoz edo darwinistaz, batzuek besteei leku emanez. Biziak eboluzionatu egiten du betiere, hala nola izadi guztiak oro har. Atsedengabea da izaki guztien aldaketa prozesua. Ez dago bere horretan irauten duen ezer, dena doa isurian, oro da atergabe mudatzen. Natura da existitzen den guztiaren —gizakia barne— jatorria. Sortugabea, amaigabea, aldakorra betiere. Espezieak ez dira betierekoak, beste espezie batzuetatik sortu dira. Orain ez daude Paleozoikoan hain ugari ziren trilobiteak. Gizakia bera ere, bere berezitasun guztiaz, bilakaera prozesu luze baten emaitza baino ez da. Eboluzioa ez da gelditzen.

Biziak pixkanaka eboluzionatu du, espezie primitibo batetik hasita. Prozesu gradual eta etengabea izan da. Espezieak ez dira betierekoak, zenbait garai eta leku jakinetan bizi eta ugaltu diren izate biologikoak baizik. Gaur egun bizi diren izakiak lehenago bizi izan ziren beste izaki batzuen ondorengoak dira. Horra hor biologia modernoaren paradigma nagusia den eboluzioaren teoria darwinistak dioena. «Biologian ezerk ez du zentzurik eboluzioaren argitan ez bada», idatzi zuen Theodosius Dobzhansky errusiar genetista handiak 1937an. *Darwinismoak* zientifikoki erakusten digu zergatik dagoen hainbeste organismo mota

ezberdin mundu zabalean. Eboluzioak Lur gaineko izakien jatorria azaltzen du eta gure espezieak gainerako izaki bizidunekin duen lotura biologikoa agerrarazten. Darwin «Biologiako Newton» dela esan dezakegu, Kant handiaren esanei kontra eginez. Eboluzioaren teoriak Darwinen izena darama gaur egun.

Denis Diderot *philosophe* frantsesak eboluzionismo biologikoari aurrea hartu ziola esan izan da. 89 urte geroago Darwinek *Espezieen jatorria*-n adieraziko zituen ideia asko aurreratu zituen: «Natura sortzailea da guztiaren abiapuntuan dagoena. Materia kanpoko bulkadarik gabe aritzen da, eta xede ororen zein aldaketa ororen gai da». Darwinen aintzindaria izan zen nolarebait, animalien eta gizon-emakumeen arteko oinarritzko ahaidetasuna agerian ipini baitzuen («*l'homme est aussi une espèce animale*»). «Animalia oro gutxi-asko gizakia da, mineral oro gutxi-asko landarea da eta landare oro gutxi-asko animalia da», idatzi zuen Denis Diderotek. Darwin izan zen «eboluzioa» argiro azaldu zuen lehena, nahiz eta «eboluzio» hitza ez den haren liburuan ageri. Herbert Spencer filosofo britainiarrari zor zaio.

Charles Darwin ez zen izan eboluzioaren ideian pentsatu zuen lehena. Haren aurretik, beste batzuek ere antzeman zituzten aldaketa zantzuak landare eta animalietan, Darwinen beraren aitona Erasmus, esate baterako (*Espezieen jatorria*-k argia ikusi baino 65 urte lehenago!). Egia esateko, eboluzioari buruzko lehen teoria orokorra Jean-Baptiste Lamarck naturalista frantsesari zor zaio, baina «eskuratutako ezaugarrien herentzia» baztertu egin zuten xx. mendean. Charles Lyell geologoaren *Geologiaren hastapenak* eta Thomas Malthus demografoaren *Biztanleriaren printzipioari buruzko saiakera* oso lagungarriak izan zitzaizkion. Ordurako, ideia aldaketa abian zen seinale. 1858ko udaren hasieran, Alfred Wallace naturalista galestarrak saiakera bat bidali zion Malaysiatik, eta «beraren teoria berdin-berdina» zela erantzun zion Darwinek («inoiz ez dut ikusi bat etortze harigarriagorik»). Elkarren berri izan gabe, antzeko ondorioetara iritsi ziren. Aintzindari lana egin zutenez, Darwinek ez zuen inoiz ezkutatu haiekiko zorra.

Den moduan dela, naturalista eta biologo ingelesa hartzen da, mehezimendu osoz, eboluzioaren teoriaren sortzailetzat. 1831ko abenduaren 27tik 1836ko urriaren 2ra arte *HMS Beagle* itsasontzian zientzia ikertzaile gisa egin zuen bidaia luzeak guztiz eraldatu zuen Darwin («inoiz gertatu zaidan gauzarik garrantzitsuena izan da, alde handiz